


Alzheimerra, adimentsu bilakatzearen prezioa

Gizaki modernoa adimentsuago bilakatu izanaren albo-ondorio bat izan liteke alzheimerra. Ondorio horretara iritsi dira [BioRxiv-en argitaratu berri duten ikerketak](#) batean. Lan horren arabera, duela 200.000-50.000 urte hainbat aldaketa gertatu ziren garunaren garapenarekin lotuta dauden sei genetari, eta hautespen naturalaren bidez aurrera egin zuten aldaketa horiek. Ikertzaileen ustez, gizaki modernoa adimentsuago egitearekin lotuta egon liteke hori, baina, aldi berean, baita alzheimerraren sorrerarekin ere. Izan ere, sei gene horiek lotura dute gaitasun horrekin.

Gizakiek soilik duten gaitza da alzheimerra, gainerako primateek ez dute. Eta azken ikerketek diotenez, gaitza oso lotuta dago hiperkonektibitatearekin eta sinapsietako jarduera handitzearekin. Hain zuzen ere, ikertzaileek uste dute litekeena dela sei gene horietan gertatutako aldaketei esker neuronon arteko konektibitatea handitu izana. Horrek, gizakia adimentsuago egingo zukeen, eta abantaila horren prezioa izan liteke alzheimerra.



Duela 200.000-50.000 urte sei genetari gertatutako aldaketen ondorioz litekeena da neuronon arteko konektibitatea handitu izana. Horrek, gizakia adimentsuago egingo zukeen, baina baita alzheimerra sortu ere. ARG.: KTSDESIGN/DOLLAR PHOTO CLUB.

Ikertzaileen helburua hautespen naturalak gizakiaren genomari utzi dituen arrastoak detektatzea zen. Horretarako metodo berri bat garatu dute, eta gaitza izan dira orain arteko metodoekin baino denboran askoz atzerago egiteko. 90 gizakiaren genomari aztertuta, duela

500.000 urtetik hona hautespen naturalaren eraginez aurrera egin duten aldaketen atlas bat egin dute. Eta aldaketa horien artean nabarmendu dituzte alzheimerrarekin lotuta dauden sei gene horietan gertatutakoak. ●

Sortzetiko bihotz-gaixotasuna izateko arriskua amaren adinari lotuta dago, baina ez obuluarenari

Haurrek sortzetiko bihotz-gaixotasuna izateko arriskua handitu egiten da amaren adinarekin batera. Orain, saguetan egindako ikerketa batean ikusi dute horren oinarria amarengan dagoela, baina ez obuluan. Eta amak ariketa fisikoa egiteak arrisku hori txikitzea eragiten duela ere ikusi dute. [Naturan argitaratu dute lana](#).

Sortzetiko bihotz-gaixotasuna da haurretan erikortasun eta hilkortasun gehien eragiten duen gaixotasunetako bat. Gaitz horren prebentziarako arreta non jarri iradokitzen du Washington Uniber-

tsitateko ikertzaile batzuek egin duten ikerketa honek. Izan ere, ez zen ezagutzen gaixotasun hori izateko arriskua amaren adinari lotuta egotearen arrazoia obuluan zegoen edo amarengan. Hori ikertzeko, sagu gazteei sagu zaharren obarioak eta, alderantziz, zaharrei gazteen obarioak, transplantatu zizkieten. Eta ikusi dute lehenengo kasuan (sagu gaztea + obario zaharra) ez dela ondorengo gaixotasuna izateko arriskua handitzen, eta bai bigarrenean (sagu zaharra + obario gaztea). Alegia, amaren beraren adina dela umeei gaixo-



Saguetan egindako ikerketa baten arabera, ariketa fisikoa arriskua txikitzen du. ARG.: NIH.

tasuna izateko arriskua handitzen duena, eta ez duela loturarik obarioaren edo obuluaren adinarekin.

Askotan adinarekin lotuta egoten diren obesitateak eta hipergluzemiak eraginik ote duten ere aztertu dute, saguei gantz askoko dieta emanaz; baina ez dute loturarik aurkitu. Baina arriskua txikitzeko modu bat badagoela

ikusi dute: amak ariketa fisikoa egitea. Gaztetatik ariketa fisikoa egiten duten saguekin, eta heldutan hasi direnekin egin dute proba, eta ikusi dute bi kasutan arriskua nabarmen txikitzen dela; eta gaztetatik edo heldutan egitearen artean ez dute alderik aurkitu. ●

Albiste gehiago
webgunean

